

Kostaldeko laponiarrak sedentarioak
diren bitartean, mendietako
laponiarrak nomadak dira.



Kostaldeko laponiarrak sedentarioak
diren bitartean, mendietako
laponiarrak nomadak dira.



bitartean

Denborazko balioa du, batez ere.

Aldiberekotasuna adierazten du adibide hauetan.

bitartean

- **Bitartean**, begi gaiztoz, kirik egiten zioten elkarri, nork lehenik irria zabalduko.

partizipioa + bitartean

- Adituen esanetan, 'Cardiowest' bihotz artifizialari esker, gaixo gehiagok iraun dezakete bizirik, transplantu beharreko bihotza iritsi **bitartean**.



bitartean

Baita adibide hauetan ere:

-(e)N bitartean

- Hizlaria mintzatzen **zen bitartean**, entzuleei negarra zerien.
- Laosko elefante-ehiztaria ehizara abiatzerakoan, aditzera ematen dio emazteari, arren ez ilerik mozteko, bera kanpoan **den bitartean**: ilea mozten badu, elefanteak lakioak hautsiko ditu.

James George Frazer, *Urrezko abarra I*, 1995.

bitartean

Denborazko balioaz gainera, beste balio batzuk ere baditu. Adibide hauetan, **espazio-** edo **denbora-tartea** adierazi nahi du:

- Aberetegia erre da, baina etxea ez, **bitartean** baitzuten laratza.
- Aralar eta Aizkorri **bitartean**, Etxegarate.
- Urkiolatik Legutiora **bitartean** dago Otxandio.
- Hamazortzitik hogeita sei urte **bitartean** zebiltzan lau gazteok.
- Lau eurotik bostera **bitartean** ordaindu behar izaten da.
- Begiak erdi itxirik egoten da zuhaitz-igela ilunabarra **bitartean**.



Balio horietaz gainera, kontrastea adierazteko ere erabiltzen da sarritan, gaztelaniaren interferentziaz. Hala ere, ez dago argi zenbateraino har dezakeen esanahi hori.

Aurkaritza-lokailu batzuk erabil daitezke, hasiera-hasierako adibidea zuzentzeko. Honela:

- Kostaldeko laponiarrak sedentarioak dira; mendietako laponiarrak, **berriz**, nomadak.
- Kostaldeko laponiarrak sedentarioak dira; mendietako laponiarrak, **ostera**, nomadak.
- Kostaldeko laponiarrak sedentarioak dira; mendietakoak, **aldiz**, nomadak.
- Kostaldeko laponiarrak sedentarioak dira, **eta** mendietakoak, **berriz**, nomadak.

Honako esaldi hauek ere badaezpadakoak dira:

- # Hogeiko hamarkadan, antzerkigileek esperimentalismo estetikoaren bidetik jo zuten **n bitartean**, hogeita hamarreko hamarkadan errealismo sozialista gailendu zen.
- # 2025ean, bi langile egongo dira erretirodun bakoitzeko, egun lau dauden **n bitartean**.
- # Irratiko mezua, nolabait esatearren, uhinetan galtzen **den bitartean**, telebistako mezuak iraun egiten du, sentsu gehiagotatik sartzen delako.



Kontrastea adierazi nahi badugu, hobe **juntadurara** eta **justaposiziora** jotzea, eta **lokailuren bat** (*berriz*, *aldiz*, *ostera...*) erabiltzea.

- Hogeiko hamarkadan, antzerkigileek **esperimentalismo** estetikoaren bidetik jo zuten; hogeita hamarreko hamarkadan, **berriz**, **errealismo sozialista** gailendu zen.
- 2025ean, bi langile egongo dira erretirodun bakoitzeko; egun, **aldiz**, lau langile daude.
- Irratiko mezua galdu egiten da uhinetan, nolabait esatearren, **eta** **telebistakoak**, **ostera**, iraun egiten du, sentsu gehiagotatik sartzen delako.